

JOSE MARIA SETIEN, GIPUZKOAKO GOTZAI OHIA

“Gaur gizarteak beste era batera ikusten du bizitza”

■ Sinismena askatasunean bizi behar dela dio hernaniarrak ■ Ebanjelioa “bizitzaren eredu bezala” eskeini behar omen da ■ ‘Egiazko bakea’ eskatu dio urte berriari.



Jose Maria Setien Artzai Oneko Katedralean, Gipuzkoako Gotzai zela emandako azken mezan.

■ 20 urte egin dituzu Gipuzkoako Gotzai. Balorazioa?

Gotzain izatea onartzerakoan, nire helburua, herriarekin bat eginik berari sinismenaren bidetik jarraitzen laguntzea zen, Ebanjelioaren mezua onartuz. Horretan saiatu naizela esan dezaket, joan deneko 20 urte horietan. Hori lortzea ez zegoen nire esku. Gizaki bakoitzak bere bizitzaren erantzukizun jakin bat darama berekin.

■ Nola dago Hernani sinismenez eta balorez; nola aldatu da zure gazte garaitik?

Nire gazte-garaietan berezkoa zen kristau bezala azaltzea eta baita nola-halako kristau izatea ere. Gehienek bataioa hartzen zuten eta honekin batera baita Jainkoaren legea betetzeko konpromisoa ere. Gizarteak onartzen zuten Jainkoaren lege hori betetzen ez bazuen ere. Gaur gizarteak eta gazteek beste era batera ikusten dute bizitza; aldaketa handia izan da honetan.

■ Zer funtzio du Elizak herri-bizitzan?

Jesu Kristoren Ebanjelioa iragarri eta eskaini, fede eta bizitzaren oinarri bezala, ez ikasten den zerbait bezala soil-soilik, baizik eta bizitzaren eredu bezala. Eta hori gizarte-bizitzatik zatitu gabe. Helburu hori ez da erraza, ez Hernanin, ez Euskal Herrian, ez inon. Hala ere, horretan saiatu behar du Elizak, eta dakidanez horretan saiatzen da Hernaniko eliza.

■ Duela gutxi keja jaso genuen Hernanin euskara hutsean mezarik ematen ez delako...

Nik ez dakit hori nola gertatu zen eta zergatik; beraz, ezin naiz auzi horretan sartu.

Hala ere esan behar da, Euskal Herrian elebitasuna aniztasunaren ezinbesteko ondorio bada, elebitasun horrek Elizan ere azaldu beharko duela.

■ Hernanik gero eta parroko gutxiago du. Izango al da zeinek meza emana hemendik 20 urtera?

Nik dakidanez Hernaniko hiru parrokiek badituzte beren arduradun «propioak». Ez dut uste hemendik 20 urtetara, parroki horiek mezarik gabe gedituko direnik.

■ Homosexualen maitasunak ez al du eratzunik mezezi?

Homosexualak beti aske izan dira eta izango dira elkarri eratzuna emateko. Beste gauza da, eratzun horri eman behar zaion balio edo estimazioa.

■ Vaticanoak 50 urte behar izan ditu Bigarren Mudu Gerran judutarrekin izandako jarreragatik barkamena eskatzeko. Hernanin 250 lagun hil zituzten Espainiako Gerran, eta azken 30 urteetan...

Ez dut uste Hernanin gauzak era berean planteatu zirenik. Elizak berak ere Gerra Zibil horretan asko sufritu behar izan zuen, apaizak aparte utzi gabe. Arazo zaila da hori, eta ez dut uste gauza horiek argitzeko biderik egokiena horrelako konparaketak egitea denik, antzeko ondorioak ateratzeko eran.

■ "Esan zazu hitz bat eta sendatuko naiz": "Sinets ezazu eta salbatuko zara".

■ Zer eskatzen diozu urte berriari?
Egiazko BAKEA.

BERTSO LATA

Punta puntako bertso saioa gaur Sandiusterrin

■ Lizaso, Sorozabal, Eizagirre, Egaña, Zerain eta Loidisaletxe II ■ Gaueko 22:30etan; 500 Ptan.



Iraulioko alprojak atzo, Bodega taberna parean.

URTERO bezala Errege eguneko bertso saioa izango da aurten ere, bere fetxatik kanpo. Txapelduna eta txapeldunordea (Andoni eta Xebastian), goi mailan dabilzan bi nahiko gazte (Sorozabal eta Loidisaletxe); eta Gipuzkoako txapelketarako *fuego* prepatzen ari diren bi hernaniar (Estitxu eta Aritz).

HAMARGARREN ALDIA 1990ean egin zen lehen aldiz Errege eguneko bertso saioa. Orduz gero, urtero egin izan da orain arte: kiroldegiko pistan eta frontoian, Galarretan eta azken aldian Sandiusterrin. Hasierako saio bakar hura bertso aste (*bertso lata*) bihurtu da; Bertso Eskolak antolatu eta udalak lagunduta. □

SENIDEAK ELKARTEA

Kontzentrazioa bihar, 13:00etan Plazan

■ LEMA: 'Euskal presoak Euskalerrira, orain' ■ Ordu berean, herri gehiagotan ere egingo da.

YOUNG PLAY urtezaharretako kotiloia 2001

Zatoz korrika gure kotiloira, besteren batetik aldegin nahi ez badezu!

KOTILOI POLTSA
KANAPEAK
PASTELAK

5.000 pta.
sarrera
+ kontsumizio 1.

Mende berria
festa giroan
hasteko!

YOUNG PLAY
Hernani



Antziola-Motor Zerbitzu Ofiziala

- ▶ Kotxe berri eta aukerako salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziaketak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu



Antziola auzoa 12 - HERNANI
Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96

JAIONE Kongelatuak



Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

ELKANO KALEA, 1
Tel.: 943 55 07 87
20120 HERNANI

UTZI HERNANI PAKEAN

Fidantzak ordaintzeko ekitaldiak urtarrila eta otsailean

■ Prentsaurrekoa eman zuten, atzo, plataformakoek ■ Apiril eta maiatzeko operazio poliziala salatu zuten ■ Fidantzako 40 milioietatik 4 dira orain arte ateratakoak.



Utzi Hernani Paketako bi ordezkari, atzo, Biterin.

ERTZAINZA eta Ibarre-txeren gobernuaren kontrako hitzak izan zituzten Plataformakoek, atzo; apirileko operazio polizialean, Ezker Abertzaleaz gain Hernani herria ere "zigortu zutela" esanez. 39 gazteak preso hartzeko frogarik eza, jasandako inkomunikazioa eta orain sufritzen duten askatasunik eza ere salatu zituzten, besteak beste.

EKITALDIK

Urtarrilean: 4ean Olerki emanaldia eta 13an Kontzertua. Otsailean: 3an Benito Lertxundiren kantaldia; 17an Rock kontzertua eta 25ean Bertso saioa. □

Tiro txapelketa bihar, Santa Barbaran

TIRO txapelketa izango da bihar, San Silvestre egunez. 3 kategoriatan banatuko dira: Hasi berriena; 1 eta 2 mailakoena eta 3 eta 4 mailakoena. Izena emateko 3.000 Pta ordaindu behar dira; 09:30etatik 12:00ak artean apuntatu behar da bihar bertan. Sariak, berriz: irabazleak 11.000 Pta, bigarrenak 9.000, hirugarrenak 7.000... seigarrenen arte. □



Ehiztariari begiratu eta platera bota. Ezetz jo!



Lehenengo banku zaharra zegoen tokian, tertulian.

Santa Barbaran bankuak eskatu dituzte

BADA egunero paseoan Santa Barbara aldera joaten denik. Orain arte Elutxeta Sagardotegi parean (bidegurutzean) deskantsu hartzen omen zuten. Orain, ordea, zegoen banku bakarra kendu egin dute puskatuta zegoela-eta. Eskatzen hasita, lehengoaz gain beste bat jarzea ere komenigarria dela diote *ibiltariek*, jende asko elkartzeko baita goiz eta arratsaldetan, deskantsuan. □

IRAGARKI MERKEAK

'Hamaseigarrenean Aidanez' bideoa behar dut, alokatu edo erosiko nuke.

Deitu ☎ 943.55 16 02.



ADARRA

ETXE TRESNAK S.A.
Txirrita 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)



Telemar ITXASTELE S.L.

Telyco denda
Elkano 13, HERNANI
☎ 943 33 26 00

'Telefonica'ko banatzailea, Movistar, zentralitak, 'Centrex', Telefono altak, Telefonía mugikorra, Faxak, "Via digital",...

Eguberritako eskaintza:
'Pack Movistar Activa' 12.900 pztatik
(8.000 pzta deietan)



HITZ BITAN



Latxunbe Berriko nazimentua, Olenzero dotore askoarekin.

✓ LATXUNBE BERRI

Inoiz baino 'nazimentu' handiagoa. Latxunbe Berriko Iturritxo auzo elkarteak jarri zuen lehenengo jaiotza, auzoetakoa behintzat. Aurten haunditzekotan ziren eta Atarrabiyo parke ondoko berdegune osoa hartu dute, Olenzero, Jesus jaiotza eta dena jartzeko.

Umeentzako tailerrak. Goizeko 10:00etatik 13:00etara umeentzako jolas tailerrak daude auzo elkarteko lokalean. Tailerrak Iturriko elkarteak antolatu ditu eta Doberako *Kilkerra* taldea ari da animazio lanean.

✓ DOBERAKO LOTERIA

Ez da saririk egokitu. Dobera Euskara Elkarteak loteria saldu du eta ez da ezer tokatu. Erosi duten guztiei eskerrak ematen dizkie lagundu izanagatik.

✓ SANDIUSTERRIKO ZAHARREN EGOITZA

Gazteak Laukotearen kontzertua, 17:30etan. Bi biolin jolek, biolak eta biolontxeloak osatzen dute Gazteak Laukotea. Bestalde, osteguneko Puntu Txapelketan Bittori Ormaetxeak eta Teodora Belauntzarenak irabazi zuten. Bigarren: Paulo Zubiarrain eta Pako Arizmendi.

✓ IGERIKETA

Eguberritako torneo gaur. Goizeko 09:30etan hasita 150 igerilari inguruko jokatu dute torneoak: alebinetatik helduetara bitartekoak. Proba guztiak 100 metrokoak izango dira: bular, bizkar, tximeleta, libre eta lau estiloak. Igerilekua jendearentzat itxia egongo da. □

AGEND	◆ ZINEA Asterix eta Obelix Biterin, 17:00	◆ MUSIKA Izotz taldea Oialume dantzalekuan Gauerdiko 12:00etan
	Woman on top Biterin, 19:30-22:30	

HERIOTZAK

Juan Oruezabal Loinaz
Ostiralean hil zen 70 urte zituela
Hileta elizkizuna gaur, larunbata, arratsaldeko zazpitan
Juan Bataiatzailearen parrokan.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Chucla
Kardaberaz 48,
☎ 943 551793
▶ Gauzez: Iturralde
Usurbilenl, Poligono 13an.
☎ 943 363395

IBUNE

Estetika

• Depilazioak • Makilajea
• Betileak • Manikura
• Masajeak • Pedikura
• Aurpegi tratamenduak • Solariuma

Zorionak
eta urteberri on!

Kardaberaz 51. Behea
Tel. 943 55 71 13 -HERNANI



EUSKAL GIROA

Igande eta jai egun
guztietan dantzaldia
19:30 etatik aurrera.

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38